

## 9. AKTA

### **OHIKO UDALBATZA, 2005eko ekainaren 28an izandakoa.**

NON: Pasaiako Hirian eta Antxoko kulturetxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko apirilaren hogeitaseian.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Juan Manuel Domínguez López j. eta

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.

José Manuel Anso Martínez j.

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a.

Mariví Roteta Mujika a. eta

Aitor Larrañaga Burguera j.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

EB-tik

Jesús M<sup>a</sup> García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu PSE-Eeko zinegotzia den Rafaela Romero Pozo a. eta Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

### **1.- Aurreko batzarrarraldiko akta irakurri eta onartzea: 5.zk.a, 05-4-5ekoa.**

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

### **2.Xedapen ofizialak eta alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.**

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

- Era berean, idazkariak ezagutzera eman du Administrazioarekiko auzien Donostiako 2. epaitegiko 150/05 epaia, Meipi SA eta bestek (Lezo Bide 22-22 zk.etako jabekide gehienak) jarritako 173/04 Errekurtso Arruntari emana, eta udal honek emandako 04-1-13 datako ebazpenaren aurka jarritakoa. Ebazpen horren bidez, jabekideen artean zatitu zen zorra, Lezo-Bide 22-24 Unitateko hiritartze-betebeharra betetzeagatik sortutakoa. Epaiak udalak alegazioa jarritako errekurtsoa onartezintzat jo du.

### **3.Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua arabera).**

Alkate andreak azkeneko bilkuratik hona egindako gestioen berri eman du:

- Madrilgo CEDEXen izan da (Azpiegitura handiei buruzko esperientzien zentroa), bertan kanpo kaiari buruzko alderdi teknikoak azaldu zituzten. Probak 2005. Urte amaierarako amaitzea aurreikusita dago. Teknikoki proiektua bideragarria da.
- Pasaiako Hiribilduaren bigarren mendeurrena ospatzeko ekitaldi instituzionala.
- Loriartzun azoka (lore eta landareak).
- Pasaia-Lezo Lizeoak antolatutako truke-programaren barruan etorri diren holandar ikasleei harrera.
- Arlo Ekonomikoa indartzeko langileen hautaketa.

- Gas Pasaiaren kontseilua.
  - Ontziolan txalupa uretaratzea.
  - Portuko Agintaritzaren kontseilua: Torreatzeren aprobetxamendua eta % 45 finantzatzea. 1. Fasea, gehenez 300.000. Bortalabordako pabiloiak berehala itzultzea.
  - Jarraian Gobernu-organoen ondorengo hitzartzeak izan dira:
    - EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea pozik agertu da azkenean Torreatzeko obrarako Portuko Agintaritzaren finantziarioa izango delako, aurrekontu-proiektuan bere taldeak agertu zuen modura.
    - PPko zinegotzi-taldearen eledun Guillermo Sanchez-Berrak gogor salatu du eta lotsagarritzat jo du San Pedroko festa-egitaraua euskara hutsean idatzi izana, eta era berean, Antxoko programan bezala, presoei buruzko propaganda azaldu izana. Bere taldeak ez daki iragarki horiek ordaintzen ote diren eta nork ordaintzen ote dituen. Alkateari gogorarazi dio iaz egindako galderaren erantzunik ez duela oraindik jaso.
    - Alkateak erantzun du iragarki guztiak ordaintzen direla eta kontabilitatea zinegotzi guztien eskura dagoela.
    - EAko zinegotzi Marivi Rotetak Hirigintzako zinegotzi-ordezkarari Jesus M<sup>a</sup> Garcia Garderi aurpegiratu dio San Juan eguneko zinegotzien bazkarian bera gezurtizat hartu izana, sail horretako planoen kopiak direla-eta, horien gastuen ordainketari dagokionez; izan ere, berak egiaztatu ahal izan du beraren taldeak bi faktura ordaindu dizkiola Azkar enpresari.
    - Alkateak udaleko gobernuaren izenean bakamena eskatu du.
    - EAko zinegotzi-taldearen eledun Miriam Canok alkateari gogorarazi dio Eledunen Batzordean aipatu zela taldeei banatuko zitzaiela Erakunde Arteko Batzordean aurkeztutako dokumentazioa.
- Beste alde batetik, alkateak ez du inoiz adierazi udalak Master Planik aurkeztu duenik eta hala eta guztiz ere, Deskargu Batzordean diputatu Koldo Azkoitiak eman zituen bi erantzunetan baieztatu zuen Pasaiak Udalak Master Plana aurkeztu zuela proiektu gisa. Horiek horrela, jakin nahi du ea hori horrela ote den, eta noren eta zeren izenean aurkeztu den.
- Alkateak erantzun du bera ez dela oroitzen Master Planik bidali duenik. Batzorde horretan agiri horri buruzko erreferentzia bakarra egin badu, ikasgaitzat har daitekeen lan-agiri gisa izan da. Formalki ez diot Master Plana inori helarazi, egia bada ere, diputatu Koldo Azkoitiari eman niola; hala eta guztiz ere, ez batzordearen barruan. Hortaz, Koldo Azkoitia diputatuari eskatuko diot argi dezan ea nork helarazi duen Master Plana batzordera eta barkamena eskatuko dut.

## **MOZIOAK**

### **4.- Partidu Popularreko zinegotzi-taldeak aurkeztutako mozioa, Antxoko trenbidea (Eusko Trenbideak) lurperatzeari buruzkoa.**

Partidu Popularreko zinegotzi-taldeak Antxoko trenbidea (Eusko Trenbideak) lurperatzeari buruz aurkeztutako mozioa errefusatu ondoren; Udalbatzak, bertan dauden zinegotzien gehiengoz, EAJko zinegotzi-taldeak aurkeztu duen ordezkotako mozioa onartu du. Mozioak ondokoa dio hitzez hitz:

“Eusko Jaurlaritzari eskatzea Antxoko barrutitik pasatzen den trenbideko zubia ken dezala, eta ondorioz, Burdinbideen Plan Sektoriala alda dezala; eta udalerrri honekin adostu dezala inpaktu gutxien sortuko duen konponbide egokiena.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da:
  - 1) PP-k aurkeztutako mozioa: BI (2) aldeko boto, PPko zinegotzientzako; ZAZPI (7) aurkako boto, EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotzientzako; eta SEI (6) abstentzio, PSE-EE (4) eta EB (2) taldeetako zinegotzientzako.
  - 2) EAJk aurkeztutako ordezkotako mozioa: HAMAIRU aldeko boto, PSE-EE (4) EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotzientzako; eta bi abstentzio PP (2) taldeko zinegotzientzako.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
  - PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sanchez-Berrak Eledunen Batzordean azaldutakoa berretsi du, alegia, lehentasunezkoztat jo du zubia kentzea. Bere taldeak pasabidea edo kanpoko geltokia onartuko luke.
  - EAKo zinegotzi taldeko eledun Miriam Canok azaldu du bere taldearen jarrera zubia kentzearen aldekoa dela, baina lurperatzearen aldeko konponbidearekin bat datorrela, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero. Bere taldea, beraz, abstenitu egingo da.
  - EAJ-PNVko zinegotzi taldeko eledun Jose Luis Goikoetxeak agertu du mozioak hiri-antolamenduan eta trenbidearen BPSn eragin dezakeela; beraz, garrantzitsua da adosten dena zuzen antolatzea alegazio modura, edo bestera, eta jarraian ondorengo adostasun-agiria proposatzea.

### **5.- EAJ eta EAKo zinegotzi-taldeen aurkeztutako mozioa, Medikuen Etxearen erabilerari buruzkoa.**

Korporazio honek ondo ezagutzen ditu EAJ eta EA taldeek erabili izan dituzten irizpideak IZARTU I programari dagokionez, azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuaren bidez onartua. Irizpide horien funts nagusia honako hau da: gastua berriz antolatzea, emandako diru-laguntza osoa erabil dadila bultzatzeko, hain zuzen ere 2001eko ekainaren 13ko ebazpen bidez Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordeak udal honi emandako diru-laguntza.

Horretarako dugun arazo nagusia da horietako proiektu bat ez dela bideragarria; izan ere, hainbat bilera eta iritzi dela-eta, korporazio honen borondate politiko nagusia honako hau dela deritzogu: Pasai Donibaneko Bizkaia Plazaren erdian “gizarte-ekipamendua” izeneko proiektua ez egitea.

Halaber, proposatzen dugun aukerak aipatutako Bizkaia plazako eraikina ez egitea dakar ezinbestean, eta Pasai Donibaneko Jubilatuen Elkartearen oniritzia du. Hala ere, horrek ez du esan nahi onartu zaizkigun diru-laguntzak galdu behar ditugunik, eta inolaz ere ez diogu uko egiten jarduketak duen helburu sozialari (jubilatuen etxe berria eta gizarte-laguntzako zentroa); proposatzen dugun jarduketa berriak gizarte-ekipamenduaren neurriak eta kokalekua aldatzea dakarren arren.

Horiek horrela, kontuan hartuta epeak gainean ditugula, eta beharrak premiazkoak direla egiaztatu ondoren, EAJ eta EA udal taldeen proposamenez, Udalbatzak, bertan dauden zinegotzien gehiengoz ondokoa

## ERABAKI DU

1.- Hasierako onespina ematea Medikuen Etxea deritzan jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketari –Donibane kaleko 30. Zk.an dagoena–; eta oraingo hirigintza-trabak kendu eta IZARTU I programa berriz antolatu ondoren, bertan jubilatuen elkarte berria eta gizarte-laguntzako guneak jartzea.

2.- Medikuen etxea premiaz botatzea eta, beste edozein jarduketa egin baino lehen, eraikina dagoen orubea finkatzea; izan ere, hondatuta dago eta irristatzeko arriskua du.

3.- Eskumena duten organoekin behin eta berriz aipatutako IZARTU I programan aitortu diren eskubide ekonomikoak (diru-laguntzak) babesteko izapideak egitea. Hain zuzen ere, diru-laguntza horiek gizarte-ekipamendua izaneko jarduketa soziala egiteko eman ziren eta guk jarduketa hori berriz antolatu eta dagozkion proiektuak enkargatzea proposatzen dugu.

4.- Espediente hau jendaurrean jartzea HILABETEZ, nahi duenak alegazioak aurkez ditzan.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: ZAZPI (7) aldeko boto, EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotzienaK; eta ZORTZI (8) abstentzio, PSE-EE (4), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzienaK.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:

- EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxeak azaldu du arrazoiaren azalpena nahikoa esanguratsua dela eta ez datorrela bat gai-zerrendan gai honi eman zaion izenburuarekin.
- Aitonon Aterpea Elkarteak aurkeztutako idatzia irakurri du alkateak.
- PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sanchez-Berrak eskaera egin du, liburutegiaren erabilera sar dadin, mozio horren alde egite aldera.
- EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxeak azken proposamen horri erantzun dio eta esan du lehentasuna duela gizarte-proiektu hori egiteak, eta badirela aukerak liburutegia jartzeko.
- EAko zinegotzi-taldeko eledun Miriam Canok gaineratu du badagoela dirua proiektu hori gauzatzeko Izartuko fondoak erabilia eta ez dagoela finantziatorik liburutegirako.
- PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sanchez-Berrak gogorarazi du udalbatzak hainbat konpromiso hartuak dituela liburutegia sendagilearen etxea zegoen orubean jartzeko. Lehentasunari dagokionez, bere ustez, liburutegia presazko beharra da, izan ere eskaera handia da eta zerbitzu hori ez dago. Hala ere, orain arte Aitonon Aterpea jartzeko, toki-gabezia egon denik agerian gelditu ez denez, gure taldea abstenitu egingo da.
- PSE-EEko zinegotzi-taldearen eledun Lore Suarezek agertu du bere taldeak, elkartu eta proposamenari buruzko hausnarketa egin eta gero, ondorengo azalpena egingo duela: 4. puntuari dagokionez, proiektuaren enkargua aurretik jartzea, Eusko Jaurlaritzak toki-aldatze edo proiektuari buruz egin dezakeen aldeko txostenaren aurretik, alegia. Onartuz gero, bere taldea abstenitu egingo da.
- EB-IUko zinegotzi-taldeko eledun Jesus M<sup>a</sup> Garcia Garde gizarte-ekipamendua Bizkaia Plazan kokatzearen alde agertu da.
- EAko zinegotzi-taldeko eledun Miriam Canok adierazi du etorkizunean Hirigune Historikoan udaleko aretoak husten direnean liburutegirako erabil daitezkeela.
- Udaleko idazkariak jakinarazi du lehenengo puntua zuzenbidez ez dela bideragarria, izan ere aurreko akordioak ofizios berrikusteko ez dago baldintza egokirik; izan ere, aurreko beste akordio bat aldatuko duen akordio bat da hau, nahiz eta hark ez zuen ezer deuseztatzen.
- Proposamen-egileen oniritziarekin alkateak botazioan jarri du mozioa, 1. punturik gabe eta 4. puntuko akordioaren hurrenkera aldatuta.

## **OGASUNA**

### **6.- Kreditu-aldaketa kreditu transferentziaren bitartez.**

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko ekainaren 22ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez ondokoa

### ERABAKI DU

Udal aurrekontuan ondoko kreditu-aldaketa egitea, kreditu transferentziaren bitartez:

1.09.00.228.622.20.01.2005	KEEL Antxoko azokako garbiketa TROE limpieza mercado Antxo	-29.300
1.09.00.228.451.10.01.2005	KEEL Antxoko Kulturguneko garbiketa TROE limpieza Kulturgune Antxo	+29.300

#### **7.- 2004ko ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.**

Kontuen Batzorde Bereziak 2005eko maiatzaren 17an aldeko txostena egin zuen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta ineteresdunek ez dute alegaziorik, eragozpenik edo ohartarazpenik aurkeztu. Horiek horrela, Udalbatzak, bertan diren zinegotzien gehiengoz eta Udal kontu-hartzaileak 2005eko ekainaren 22an egindako txostena aintzat hartuz, ondokoa

### ERABAKI DU

- 2004ko ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: SEI (6) aldeko boto, PSE-EE (4) eta EB (2) taldeetako zinegotzienak; eta BEDERATZI (9) abstentzio, EAJ (4), EA (2) eta PP (2) taldeetako zinegotzienak.

#### **8.- Aurrekontua Betearazteko Arauaren 2. Oinarrian dagoen akatsa zuzentzea.**

Aurrekontua Betearazteko Araua onartzeko akordioan, zehazki 2. Oinarrian, akats aritmetikoa antzeman dugu. Horiek horrela eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2. artikuluan aurreikusitakoarekin bat; akordio honen bidez, bertan dauden zinegotzien aho batez, egintza hartan dagoen ondoko akats aritmetikoa zuzenduko da:

Ondokoa dioen tokian:

#### **2.- OINARRIA.- AURREKONTU OROKORRA OSATZEN DUTENAK**

Aurrekontu Orokorra honela osatzen da:



- a) Udalaren Aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: 22.743.621 €.
- b) Euskaltegiaren aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: 592.885 €.
- c) Zaharren Egoitzaren aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **1.420.305 €.**
- d) Pasaia Musikalen aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **781.000 €.**

Honela bada, Aurrekontu kotsolidatua honako hau da, gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta: **24.754.229 €.**

Ondokoa behar du:

## **2.- OINARRIA.- AURREKONTU OROKORRA OSATZEN DUTENAK**

Aurrekontu Orokorra honela osatzen da:

- a) Udalaren Aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **22.796.409 €.**
- b) **Euskaltegiaren** aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **592.885 €.**
- c) Zaharren Egoitzaren aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **1.420.305 €.**
- d) **Pasaia Musikalen** aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **781.000 €.**

Honela bada, Aurrekontu kotsolidatua honako hau da, gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta: **24.807.017 €.**

Eta, beste gairik ezean, 11:00etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.